



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

Aitana Agirre

2024.06.07 Kanpaina ixteko mitina (Bilbo)

Hitzaldia eskerrak ematen hasi nahi dut. Eskerrak alderdikide guztiei kanpaina honetan egin duzuen lan gogorragatik. Ezeren truke dena emateagatik. Sinesten dugunaren alde lan egiteagatik. Zalantzarik gabe, Alderdi honek duen onena zarete. Nahiko lukete beste batzuek gure alderdikideen kalitatea eta konpromisoa!

Badakit aurreko hauteskundeetatik apur bat nekatuta gatozela denok, baina benetan, europar hauteskunde hauek azken urteetako garrantzitsuenak dira. Euskadiko eredu soziala sendotasunez finkatzeko dago, Europar Batasuneko proiektua bezala, eta oso garrantzitsua da gure ahotsa, Euskadiren ahotsa, erabakiguneetan egotea. Guk gure interesak defendatzen ez baditugu, ez ditu inork defendituko!

Europar txikia den alderdi bati bozkatzek zentzu askorik ez duela pentsatuko du baten batek. Herri txikia izango gara tamainaz, baina Europari egiten dizkiogun ekarpenek egiten gaituzte handi. Europar Batasunean egin dugun lana ere ezaguna eta aitortua da. Izaskunen iturri zaharretik edaten duen ur berria da Oihane. Indar berria da, baina aurrekoek eginiko lan guztiaren babesarekin joango da Bruselara. Katea ez da eten!

Denok dugu Alderdiaren balioak transmititu dizkigun norbait, dela gertuko lagunen bat, Amona edo gurasoak. Nire kasuan, nire iparrorratza Aita da. Europa maitatzen Aitak erakutsi zidan, txikitatik Euskadi eta euskara maitatzen erakutsi zidan bezala. Erakutsi zidan harrotasunez zabaldu behar dugula munduan Euskadi zer den, garena ezkutatu beharrean. Aitak erakutsi zidan gurea Alderdi bakezalea izan dela beti, eta demokraziaren eta askatasunaren defentsan egon dela azken ondorioetaraino.

Horregatik, guri transmititutako balore horiek defendatzeko, azken txanpa honetan dugun guztia eman behar dugu, Euskadiren etorkizuna jokoan dagoelako.

Euskaragatik, berdintasunagatik, bakeagatik, Aberriagatik: Euskadik behar zaitu! Europak behar zaitu!

Igandean egin Euskadiren alde! Bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!